

INGENIARITZA GRADUAK

PLAZAK:

2020-2021 ikasturtean Goi Eskola Politeknikoak gradu bakoitzeko ezarritako plaza kopurua ondokoa da:

- Mekanikako Ingeniaritza - 110
- Industria diseinuko eta produktu garapeneko ingeniaritza - 70
- Industria antolakuntzako ingeniaritza - 65
- Industria elektronikako ingeniaritza - 45
- Informatikako ingeniaritza - 60
- Energiaren ingeniaritza - 40
- Prozesu industrialetako ekoteknologiaren ingeniaritza - 40
- Ingeniaritza Biomedikoa – 40
- Mekatronika Ingeniaritza - 80

KUPOAK:

Ez da kuporik ezarri.

LEHENTASUNAK:

Ez da lehentasunik ezarri.

ONARPEN NOTA:

Ikasleen Onarpen-nota ondokoaren arabera erabakiko da:

- %70 sarrera-nota *
- % 5 aurreko ikasketetako modalitateari edo curriculumari lotutako kalifikazioa
- %25 froga espezifikoak

*Nazioarteko sistemetatik etorritako ikasleen kasuan, sarrera-nota unibertsitate aurreko ikasketetako azken bi urteetan lorturiko emaitzetan oinarrituz kalkulatu da, UNED-eko sarbide kredentziala edo Hezkuntza Ministeritzak esleitutako Batxillergoaren homologazio kredentziala izan ezean.

FROGA ESPEZIFIKOAK:

Sarbide probak bi zati ditu: batetik, taldeka egiten den dinamika bat eta bestetik, banakako profil eta motibazio test bat.

Talde dinamikaren helburua da graduan erabiltzen den hezkuntza-metodologia erakustea datozen ikasleei eta horretarako, ingeniariarekin lotutako erronka bati soluzioa eman beharko diote talde lanean.

Sarbide proba egiteko ez da aldezturik ezer prestatu edo ikasi behar ez baita azterketa bat.

Proba horietan ondoko gaitasunak baloratuko dira:

- Ekimena eta proaktibitatea
- Autokonfiantza
- Sormena
- Talde-lana
- Komunikazio eraginkorra

- Hizkuntza-gaitasunak

Sarrera frogetan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da aurreinskripzioa egitea honako web orrian:

www.mondragon.edu/inskripzioak

Sarbide-frogen plazak mugatuak dira, beraz, beharrezkoa da bertan parte hartuko duzula konfirmatzea. Frogen datak eta tokiak ondorengoak dira:

- Urtarrilak 25
- Maiatzak 28
- Ekainak 17

Ez-ohiko froga bat antolatuko da, ez-ohiko epean izena eman duten ikasleekin, beti ere plaza hutsak gelditzen badira.

Informazio gehiagorako, Idazkaritza Akademikoarekin harreman jarri zaitezke: onarpena.ing@mondragon.edu